

prest!



BERBETAN: SONIA BUCUR ETA SANDRA SANTOS LA PUERTA TATTOOKO KIDEAK

ERREPORTAJEA: SORMEN ERREBELDE FEMINISTA TOPAKETAK BARKUA: **DEUSTUKO IÑAUTERIAK OSPATU DITUGU!**

01-262-263-264-265



Sustatzailea



Babesleak



Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukariaren erantzule bakarra






Babestu
Prest!


urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

- Izen-abizenak
- Helbidea
- Telefonoa
- E-posta
- Kontu zenbakia (Iban)

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

Nerea Cubillo Urkizu - Itsaso Larramendi Elexgaray	326	Iritzia	4
Olatz Sagastui		Gureak kanpoan	5
erreportajea SORMEN ERREBELDE FEMINISTA TOPAKETAK ARTEAREN BIDEZ MINAK ETA POZAK ADIERAZTEKO MODU BAT			6
<i>Otsailean itxiera eman zioten Deustu-San Inazioko Modulu Psikosozialak antolatzen duen Sormen Errebelde Feminista zikloari Erriberako Bizinahi auzo-gunean. Tailerretan egindako artelanen erakusketa egiteaz gain, elkarrekin bizi izandako uneak ospatu zituzten. Udaberriarekin datoz hurrengoak.</i>			
Ibarrekolanda BHI		Eskolak	10
Maria Iruletaren alabaren ezkontza (1782)		Behin batean	12
Deustuko auzoaren bilakaera: iragana eta oraina	a	Artikulua	14

berbetan SONIA BUCUR eta SANDRA SANTOSEkin			16
<i>Deustuk azkenaldian negozio berri bat hartu du bere bihotzean. Sonia Bucur zaragozarra da, baina jada zazpi urtez bizi izan da Bizkaian. Sandra Santos portugaldarra da, egun Llodion bizi dena. Biak La Puerta Tattoo estudioko kide dira, duela bi hilabete Deustura lekualdatu zen tatuaje estudioa. Sonia, lokaleko harreragilea eta marketin arduraduna da; Sandra, aldiz, tatuatzailea. Elkarrizketa honetan, Deustuko auzoari buruz dituzten lehen inpresioak eta esperientziak partekatuko dizkigute.</i>			
Deustuko herria anaxioaren kontra (1982)		Irudiak berbetan	21

EUSKAL KULTURA Bikoizketa, azpitoluekin ala bertsio originalean?

JAI HERRIKOIAK Deustuko Iñauteriak ospatu ditugu!

KULTUR TXOTX Jon Intxaurrega, Erika Bravo eta Kattalin Urriz



**barkua
bete
herba**

24

Prest!

Argitaratzailea:

BLB Komunikazioa Koop. Elk.

Tel: 94 447 10 42

Ramon y Cajal 42

Deustu 48014

bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Idurre Villanueva Del Burgo

Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurrega

Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura

Argazkiak: Ecuador Etxea

Publizitatea: Idurre Villanueva Del Burgo

Diseinua: BO5T

Maketazioa: Laura Freijo Iglesia

Inprimategia: Antza

Ale kopurua: 2.800

Lege Gordailua: BI-571-01



6

Nerea Cubillo Urkizu

Zergatik onartu ezarri dutena?

Porrarik ez, eskerrik asko


Hau idazten ari naizela, 17 egun baino ez dira geratzen Done Petri plazatik Deustuko Jaietako lehen txupina lau haizetara botatzeko. Deustuko Jaien kartela, igaro berri den inauterien irudi mordoarekin nahastu egin da sareetan, inauterietako aje nostalgikoari tarterik utzi gabe. Indar erakustaldi honen baitan, heldu dira ere bai hornitzaille ezberdinen eskaintza berriak: zapiak, edalontziak, azpiegitura... ezer ez da faltako jaietan, ziur. Eskaintza guztien artean, segurtasun zerbitzu pribatua eskaintzen duena ere heldu da eta, zalantzarik gabe, atentzioa deitu dit.

Gure jaiak seguruak dira, guk geuk egiten ditugulako seguru. Ez dugu behar porra eskuan zainduko gaituenik, orain arte bezala, eraso guztiei autodefentsa feministarekin erantzungo baitiegu. Deustuko Jai Batzordeak jai herrikoi, euskaldun, parekide eta parte hartzaileak antolatzen ditu, eta azken honen baitan doa parte hartze seguru bat denon artean bermatzea, elkar zaintzan oinarrituta. Ez dugu gure jaietan erasotzailerik onartuko, beraz, ez badakizu egoten, ez etorri.

6

Itsaso Larramendi Elexgaray

Hiriaz eta beste



Hetero-auzo

Boteprontoan, hiri hazkunde eredu batek heteronormatibitatea erreproduzitzen duela esango bagenu, handinahikeriaz betetako baieztapena dela pentsa genezake. Ziurrenik bada. Baina badago harremana, zuzena gainera, hiri-ereduaren eta bizimoldearen artean.

50eko hamarkadako etxebizitza-auzo estatubatuarrak dira baieztapen horren eredu adierazgarri eta esanguratsuenetarikoak. Preciadok dio, garai hartako aldirietako etxebizitza familiabakar eta prefabrikatua familia heterosexual zuriaren masa-produktorea izan zela. Klasea, generoa, arraza eta sexu-normaltasuna ekoizteko tresna. Erreproduzio hetero zuriaren utopia. Arkitekturak subjektibitatean eragiten baitu elikatzen duen imaginarioarekin, ahalbidetzen duen bizilagun aniztasunarekin, errazten dituen harremanekin, inposatzen duen isolamenduarekin.

Ez dugu Bilbon halako auzune estatubatuar estereotipaturik, baina baditugu auzo hetero eta queer-agoak. Bizi-eredu normatiboaren kutsu handiagoa dutenak, eta ordenaz haragoko izaera bestelakoagodunak ere. Ez noa auzo izenik botatzera, baina esango nuke, eraikinen tipologiak eta aniztasun mailak baduela harremanik auzotarren bizimoduen normatibitatearekin. Lau logelako etxean pertsona bakarra bizitzea bezain zaila delako logela bakarreko etxean lau lagun bizitzea.



Olatz Sagastui

Jatorria: Deustu

Bizitokia: Margaret River (Australia)

Lanbidea: irakaslea



Noiztik zaude Australian eta zerk eraman zintuen hara?

Urriaren hamabostean hartu nuen hegaldia Madriletik eta urriaren hamazazpian iritsi nintzen Perthera. Bertan hirulau hilabete egon naiz eta orain dela hiru aste Margaret Riverrera etorri nintzen. Zerk ekarri ninduen hona? Nire mutilak izan zuten Australiara etortzeko ideia.

Zergatik aukeratu zenuen Australia bertan bizitzeko?

Batez ere, Work and holiday bisaren berri izan nuelako, baina egia da askotan esaten dela Australia leku erraza dela dirua irabazteko, eta horrek ere erakarrininduen.

Garzte euskaldunei zer eskaintzen die Australiak?

Niri eskaini didana gurasoen etxetik alde egitea eta zerotik hastea da. Azkenean, horrek ematen dizkizu esperientzia berriak eta biziraute instintua, baina betiere etxera bueltatzeko segurtasuna izanda.

Zelan moldatu zara hizkuntzarekin? Erraza izaten ari da? Zein zailtasun izan dituzu?

Beti izan naiz nahiko txarra baina moldatuz zoaz eta konturatzzen zara ingelesa hizkuntza sin-

pleena dela. Adibidez, Perthen egon nintzenean jatetxe batean egin nuen lan eta egunero bezeroekin ingelesez hitz egiteak hiztegi berria irakatsi zidan.

Zerk harritu zaitu? Zein antzekotasun aurkitu dituzu?

Batez ere bizi estiloak eta egunerokoan duten ordutegiak harritu nau. Hemen goizeko seietan martxan egon daitezke, lanera joan aurretik eguneko kirola eginda. Jaterakoan, gosariari ematen diote garrantzia, gutxi bazkaldu eta seiak aldera afaltzen dute. Nik uste, orokorrean ordutegiak harritu nauela.

Zaila al da Australian lana bilatzea?

Zaila ez, baina oso konstantea izan behar duzu. Zerbitzari moduan topatu ditudan lanak kurrikuluma eskura entregatuz lortu ditut. Lana bilatzeko aplikazioak ere badaude, baina nire ustez efektiboena zera da: bilatzen duzun lanaren arabera kurrikuluma moldatzea eta prezentsialki entregatzea.

Ordutegi ezberdintasuna dela, zaila egiten zaizu jendearekin harremanetan egotea?

Familiarekin hitzartuta daukat noiz egin bideodeia baina adibidez lagunekin hitz egitea zaila

egiten zait. Azkenean, ni ere hemengo ordutegira ohitu naiz eta goiz noa lotara. Zaila da ku-deatzea, baina errazena mezu bidez hitz egitea da, egia esan.

Noiz arte geratuko zara Australian?

Bisa urte baterako da baina ez naiz urte osoa egongo: hilabete batzuk arinago bueltatuko naiz baina ez dakit noiz, egoerak eskatu ahala.

Deustuko edo Euskal Herriko zer duzu faltan?

Harremantzeko modua botatzen dut faltan. Hemen tabernetara joaten dira, baina modu ezberdin batean, ez dakit... Eta janaria ere faltan botatzen dut; adibidez, fruta oso gozoa da baina gainerako guztiak ezin dira Euskal Herriko janariarekin alderatu.

Zer gomendatuko zenioke Australiara doan norbaiti?

Gomendatu baino, bisa tramitatzen lagunduko nioke, nahiko nahasia baita. Adibidez, bai gomendatuko niokeela Facebooka deskargatzea, hortik lortzen delako dena. Baina gomendatzea baino, bideratzea esango nuke. Gero bakoitzak bere esperientzia bizi dezala.



SORMEN ERREBELDE FEMINISTA TOPAKETAK

Artearen bidez minak eta pozak adierazteko modu bat

Otsailean itxiera eman zioten Deustu-San Inazioko Modulu Psikosozialak antolatzen duen Sormen Errebelde Feminista zikloari Erriberako Bizinahi auzo-gunean. Tailerretan egindako artelanen erakusketa egiteaz gain, elkarrekin bizi izandako uneak ospatu zituzten. Udaberriarekin datoz hurrengoak.

Testua eta argazkiak: Nerea Olaziregi

Batzuek elkar ezagutzen zuten aurretik. Beste batzuek aurreko hilabeteetan egindako tailerretan egin zuten topo. Aurpegi berriak ere baziren. Guztien artean, itxiera eman zioten Deustu-San Inazioko Moduluak antolatzen duen 2024ko Sormen Errebelde Feminista zikloari. Ekimenak aukera ematen die, emakumeei eta gorputz disidenteei, bizipen kolektibo sortzailak izateko eta bestelako errealitate feministak irudikatzeke.

Erriberan elkartu ziren, Bizinahiko lehenengo pisuan, liburutegian. Ez da kasualitatea izan topaketen amaierarako, Erriberako auzokideek berreskuratutako espazio hori aukeratzea, izan ere, toki lasai, seguru eta goxoa behar baitzuten.

Sormen tailerretan parte hartutako hogeii emakume inguru bildu ziren, eta ikastaroen antolatzaile eta dinamizatzaileekin batera, forma eta kolore ugarietako sorkuntzak atera eta erakusketa prestatu zuten (oraindik ikusgai dago bertara hurbildu nahi duenarentzat). Poesia xuxurlatuarekin hasierako giro urduria baretu egin zen eta zikloaren inguruko balorazio txiki bat egin ondoren, Celeste Agüerok, idazketa-tailerreko gidariak, bertatik sortutako testu kolektiboa irakurri zuen.

Ondoren, parte hartzailetariko batek egun horretarako bereziki idatzitako testu bat irakurri zuen. Hunkituta, erraietatik ateratako hitzekin txundituta utzi zituen entzuleak. Janaria eta



Argazki galeria



edariaren inguruan, solasaldirako unea iritsi zen gero, baita txapa inprobisatuak egiteko aukera ere. Aipamen berezia izan zuen egitasmoaren arduradunak, Ane Navarro Martinek. Deustu-San Inazioko Moduluko gizarte-hezitzailea da eta “bizipena hunkigarria eta polita” izan dela esan digu. “Parte hartzaileen balorazioa oso ona izan da. Prozesuak oso sakonak izan dira, eta gure artean saretzeko balio izan du, hori ere baita ekimenaren helburuetariko bat”.

Azken edizio honetan, Sormen Errebelde Feminista zikloaren baitan lau tailer eskaini dituzte eta gorputza izan da laurak lotu dituen haria. Topaketak martxoan hasi ziren Itziar Arroyo dantzariak gidatu zuen “Lehenengo lurraldea: Gorputza eta Mugimendua” tailerrarekin. Maiatzean, Maite Mentxakak, ilustrazioa eta argazkigintza arte-diziplinen bitartez, gorputzetan arakaten

jarraitzeko aukera eman zien parte hartzaileei. Irailean, idazketaren bitartez, bizipenei ahotsa emateko txanda heldu zen Celeste Agüero literatur irakasle eta poesia xuxurlariaren laguntzaz. Eta azken tailerra azaroan izan zen. Ines Bermejok errealitateak berreraikitzeke gonbita luzatu zien material birziklatuak berrerabiliz. Aurreko tailerretan bildutako materiala erabiliz -argazkiak mugimenduan, norberaren gorputzarekin egindako muntaketak, ilustrazioak eta testuak-artelanak sortu zituzten.

Urtez urte, topaketaren arrakasta handiagoa da. Anek emandako datuen arabera, “Oraingoan 60 emakumek hartu dute parte eta 91 izen-emate egon dira. Gehienak Deustualdekoak eta 20-60 urte bitartekoak”. Hori da bere ustez, tailerren ezaugarrietariko bat. “Oso anitzak dira zentzu askotan eta hori oso aberasgarria da”.

Datorren zikloko egitaraua prest dute dagoeneko. Anek azaldu digunez, “sistemak saltzen digun arrakasta kapitalista, matxista, arrazista eta orokorrean, zapaltzailearen aurrean, bestelako erreferenteak izango ditugu gai. Ez dute zertan ezagunak izan behar, gure egunerokoan baliogarriak izan daitezkeenak baizik”. Horretarako, lehenengo

tailerrean ahotsa lantzen hasiko dira, “gorputzetik abiatzen direlako kontakizunak”. Gero hitzetan, narrazioan eta poesian errepikatuko dute. Hirugarren tailerra ilustrazioa izango du abiapuntutzat eta amaieran, fanzine bat egitea dute helburu. “Besteak beste, prozesuan jasotako guztia lau haizeetara zabaltzeko”, dio Anek ilusioz.



Deustu-San Inazioko Modulu Psikosoziala 1982an sortu zen Deustualdeko biztanleriaren arazoak modu integralean artatzeko asmoz. Egun, arreta juridiko, psikologiko eta sexuala emateaz gain, prebentzio eta sensibilizazio lanetan aritzen dira parekide-tasun, genero-indarkeria, gizarteratzea eta bazterkeria alorretan. Emakumeak eta disidentziak artatzen dituen lan taldeak, urtean zehar, besteak beste, autodefentsa tailerrak, afektibitate eta sexualitate formazioak antolatatu eta indarkeria matxista prebenitzeko gida eta materialak sortzen ditu. Sormen Errebelde Feminista ekimenarekin 2023an hasi ziren. Orduan helburua beste bat zen: gazteentzako indarkeria matxisten eraginari buruz pentsatzeko gune kolektibo seguruak sortzea. Baina formatu hori agortzen ari zela ikusita, sortzaileagoa zen zerbait eskaintzea pentsatu zuten. Bizipenei eta burutik baino, gorputzetik lan egitea. Eta aukera hori adin guztietara zabaltzea.





Pozik daude lortutakoarekin. Minak, amorruek eta pozak artearen bidez ere kanporatu daitezkeelako. Proposamen iradokitzailak. Norbanakotik eta sarean. Gozatuz. Sorkuntza pertsonal eta kolektiboak. Zainduta. Espazio seguru eta goxoetan. Eta denon eskura!





LEMOIZKO EUSKAL GIROTZE BARNETEGIKO ESPERIENTZIA



Ibarrekolanda BHI-ko DBH 2. mailako ikasleekin egon berri gara Lemoizen, barnetegian, duela bi aste eskas kronika hau idazten hasi aurretik. Barnetegiak ezagutzen ez dituzten irakurleentzat, azaldu beharra dago erakunde moduan euskararen erabilera sustatzeko tokiak direla, bertan egonaldiak eginez ikasleek hizkuntzan inmertsioa esperimentatu dezaten, eta gurea bezalako hizkuntza gutxitu batean normaltasun osoz bizi daitekeela frogatzen duen esperientzia biziareziz.

Testua: Ander Barón González **Argazkiak:** Ibarrekolanda BHI

Lan eskerga da betidanik euskararen alde egitea, batez ere Bilbo Handian XIX. mendetik gertatu izan diren eta gertatzen ari diren biztanleria bilakaerak tartean egonda, mundu osoko hizkuntzak gurerara ekarri dituztenak, eta komunikazio tresna nagusi moduan gaztelania erabiltzera bideratu gaituztenak egunerokotasunean. Honen aurrean kikildu ordez, eta etengabekoa dirudien erdalduntze prozesu bati aurre eginez, erresistentzia gune hauen lana txalotu beharra dago, eta bertan lan egiten duten monitoreei euskaltzale moduan zor dieguna ez dago neurtzerik.

Lemoizko barnetegia bera paisaia eder batek inguratzen duen beinolako baserria dugu, mendixkez eta larreez inguratuta dagoena, eta bertan be abereak dituena, hipika klubaren aurrean kokatuta -zaldiekin entrenamenduak ikusteko parada eta guzti!-. Bistak ere ikusgarriak dira, oskarbi dagoenean Sopela eta Plentziako kostalde osoa ikus baitaiteke. Askotariko ekintzak egin ditugu bai bertan bai aldirietan, adibidez, Gorlizeko hondartzara irteera, Berangon rokodromoan ibiltzea eskaladan, hainbat eta hainbat jarduera eta dinamika barnetegiko tatami gelan... Ondo pasatu dute gure ikasleek, gero, nahiz eta bien bitartean haiekin batera joan garen irakasleoi buruko min bat baino gehiago eman.



Aipagarriena, ordea, ez da gozamen hau izan, baizik eta ikasleek eduki duten bilakaera. Egonaldia bukatzeko mementoan hartutako neurketek (eta jarduerak gauzaten zebiltzan bitarteko behaketak berak) erakutsi digute hizkuntza erabilera indartu dela taldean, eta ikasleen beraien euskarakerikiko lotura handitu dela. Hau dena, ordea, bigarren plano batean jarriko nuke ikusi dudana etekin nagusiaren aldean: Talde kohezioaren eta harremanen hobekuntza itzela, bereziki alderdi hori indartzea behar duten ikasleak izanda.

Laburbilduz, esperientzia polita eta gomen-dagarria adin honetako ikasleentzako, hizkuntza murgiltze aldetik hobekuntza nabarmenak gauzatzeko lau egun apur bat motz suertatu arren, bizikidetzan landu eta hobetzeko sekulako balioa duena. Irakatsi baino gehiago, gure nerabe hauek apur bat hezi ditugu etorkizun batean egokiro gizarteratutako pertsona bilakatzeko bidean, eta ez da gauza makala.





MARIA IRULETAREN ALABAREN EZKONTZA (1782)

Zer esana eman zuen Maria Iruletaren alabaren ezkontzak Deustun eta alboherrietan. Ospakizuna itzela izan zelako, jende andana batu zelako... eta Maria Iruletari eta Deustuko fielari isuna jarri zitelako. Ezkontzetan eta hiletetan gehiegizko gastuak murrizteko legedia zegoen XVIII. mendean.



Ezkontza Bizkaian. Mamerto Seguirín margolana (1889).

Testua: Hektor Ortega

XVIII. mendearen amaieran, Espainiako erregea, Bizkaiko batzar nagusiek eta Santo Domingo de la Calzadako gotzaina agindu zehatzak emanda zeuden elizkizunekin lotutako oturuntzak galarrazteko. Alde batetik, agintarien iritziz, familiek dirutzak xahutzen zituztelako horrelakoetan, izan ezkontza edo hileta. Bestetik, jan-edana ugari, gizon-emakumeak nahastean, musika eta dantza zegoen bakoitzean, handi-mandiak artegatu egiten ziren. "Gehiegikeriak" nonahi ikusten zituzten.

Agintarien ardura, herritarren gustua. Izan ere, herri-kulturaren adierazpide garbiak ziren ospa-

kizun haiek. Betekada eskatzen zuten egiazkoak izango baziren: jan-edana nahi beste, giro alaia, jende asko, musika eta dantza...

Debekuak debeku, Deustuko Maria Iruletak ospakizun handia egin zuen alaba Maria Antonia Puch Francisco Lemonauriarekin ezkondu zenean, 1782ko abuztuaren 16an. Auzia ireki zioten, hain izan zen handia. Nonbait, ezkontzaren oihartzunak Tomas Etxebarria Bizkaiko sindikoaren belarrietara heldu ziren eta hark salaketa paratu zuen Korrejidorearen aurrean Maria Iruletaren kontra.

Ez-ekontza etxeoentzat

Deustuarrak bazeukan bere burua nola defendatu. Batetik, Maria Antonia eta Francisco abuztuaren 16an ezkondu ziren Deustuko elizan eta egun hartan ez zuten inongo bazkari edo ospakizunik egin. Baina, “lotsaren lotsaz”, bihar-munean, zapatua, “egun pasa” antolatu zuen bere landa-etxean, aitabitxi, amabitxi, senide eta lagun hurkoentzat. Alabaren aldetik 20-30 lagun gonbidatu zituen eta, senargaiaren aldetik, dozena bat gehiago. Txistularia ere eraman zuen eta, hau jotzen hasi zenean, jende gehiago agertu zen, inork gonbidatu barik, eta horregatik Domingo Etxeandia Deustuko fiela (alkatea) ere deitu zuen, dantzaldia gobernatzeko.

Beraz, hura ez zen ezkontza-ospakizuna, lekuko batek esan zuen bezala, “egun hartan ez zelako inor ezkondu”; eta gonbidatuak gutxi-batzuk baino ez ziren, gehienez ere 40en bat, baina gero jende gehiago agertu zen, gonbitik gabe.

Ospakizuna Maria Iruletaren etxean egin zuten. Deustuko Erribera eta Basabe auzoaren artean zegoen. Lekukoek kontatu zutenaren arabera, etxe barruan egin zen bazkaria. Arratsaldean, etxe-ondoan jo zuen txistulariak. Han zeudeneztat ere jan-edana jarri zuten.

Tuntunaren soinuan

Lekuko pare batek honela aipatu zuten txistua: “Con motivo de haber tamboril o tuntun la tarde de dicho día”. Alegia, tuntunaren soinuan ibili

ziren arratsalde hartan Maria Iruletarenean. Tuntun esan izan zaio txistuari Euskal Herriko leku askotan, Nafarroa Beheretik eta Aezkoatik Deusturaino. Antza denez, txistulari edo danbolinteroari ere tuntun esan izan zaie.

Domingo Etxeandia fielak gobernatu zuen tuntunaren jarduna. Ez zien utzi andre-gizonei batera dantzatzeko. Lekukoek kontatu zutenez, jende asko eta leku gutxi zegoen Iruletaren etxearen ondoan eta, horregatik, baimena eskatu zioten Etxeandiari tuntuna eta dantzaldia hurbileko Basabeko landara eramateko. Fielak, ostera, ez zuen eman. Etxe-ondoan segitu zuen erromeriak ilundu arte.

Ikerketa luzatu ahala ezkontzan agertu zen jende kopurua nabarmen handitu zen: senideak, lagunak, maizterrak, auzokoak, abadeak, ezkontzako eskribaua eta idazkaria... eta ezkontideekin zer ikusirik ez zeukan jende asko, tuntunaren soinuari segika agertutakoak. Agintariak isun handiak ezarri zizkieten Etxeandiari (1.100 erreal) eta Maria Iruletari (550 erreal) baina helegiteak jarrita, ezerezean gelditu ziren. Hala ere, Bizkaiko sindikoak ere helegitea paratu zuen eta, azkenean, Iruletari eta Etxeandiari erdibana ordaintzeko 295 errealeko isuna ezarri zieten.



Kalderapeko
euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

ALTXA BURUA TALDEAREN EKIMENA: TELEFONOAK ESKOLETATIK KANPO



Altxa Burua elkarteak 20.000 sinadura jaso ditu ikastetxeetan telefono mugikorrek erabiltzea dekretuz debekatzeko. Arauketa uniformerik ezak desberdintasunak eta arazoak sortzen dituela argudiatzen dute; Eusko Jaurlaritzak bere partetik, ikastetxeen autonomia eta gaitasun digitalak garatzeko teknologien erabilera defendatzen ditu.

Testua: Idurre Villanueva

Euskadin ez dago araudi espezifikorik eskoletan telefono mugikorrek erabiltzearen inguruan, eta erabakia, beraz, hezkuntza-zentro bakoitzaren esku dago; horrek, hezkuntza ingurunean desberdintasunak sortu ditu.

Altxa Burua gurasoz osatutako taldea da, pantailak haurrengan eta nerabeengan duten eraginaz kezkatuta dauden familiek sortutakoa. Haien ustez, gaiari modu uniformean heltzeko unea da eta Hezkuntza Sailari honako eskaera egin diote: lege bidez ikastetxeak mugikorrik gabeko espazio izendatzeko, bereziki Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan. Gauzak horrela, Deustun antolatzen hasiak dira.

Deustuko Ikastolako gurasoek Altxa Burua taldea osatu dute bertan eta bilera informatiboekin ekin diote, Aitziber Veites taldeko kideak jakinarazi digunez: “Maila bakoitzean zer lehentasun dagoen aztertzen ari gara, datorren ikasturteari begira”. Lehen Hezkuntzan zein DBH 1. mailan ordezkariak izendatu dituzte jada, eta ideia nagusia ekimena auzora zabaltzea da, gainontzeko eskolako guraso elkarteekin harremanetan jarri: “Auzo mailan lan egitea da helburua: Gipuzkoako taldeak bezain aurreratuta ez gauden arren, Bilboko auzoetan ere ekimena hedatuz doa”, argitu du Veitesek.

Bestalde, ekimenaren aurkezpen ofiziala abenduaren 2an burutu zen, Euskal Parlamentuan egindako legebiltzarrean. Horretan, plataformako hiru kide izan ziren, talde osoaren izenean. Hizlariak taldeko partaideen kezka aitortu eta Eusko Jaurlaritzak babestutako ideia zalantzan jarri zuten: “Ez dago zientifikoki egiaztatutako ebidentziarik sakelako telefonoek hezkuntza prozesua hobetzen dutenik”.

Ekimena elikatzen jarraitzeko asmoz, urtarrilaren 28an mahai-ingurua izan zen Bizkaiko Medikuen Elkargoan, Altxa Burua taldearen eskuetik. Horretan, pantailen erabilerak haurtzaroan eta nerabezeroan duen eraginaren inguruan hausnartu zen. Ekitaldia arratsaldeko 18:00etan hasi zen eta asko izan ziren bertaratu zirenak.

Proiektuak izaten ari duen oihartzuna dela eta, Altxa Buruak 2025eko Proiekturik Onenaren Argia Saria jaso du, egindako lanari, lortutako emaitzei, eta ikastetxeak mugikorrik gabeko arnasmune izateko borroka burutzeari esker. Horrez gain, ekimenak Radio San Sebastian Bikaintasunaren Saria ere jaso du, audientziarik emandako ‘Bada beste modu bat’ kategorian (Laboral Kutxa Saria).



DEUSTUKO AUZOAREN BILAKAERA: IRAGANA ETA ORAINA



Deustu Bilboko auzo bizia da, landa-eremutik hiri-auzo izatera bilakatu dena. Zerbitzu ugariak, segurtasuna eta berdeguneak eskaintzen ditu; alabaina, merkataritzaren aldaketa eta populazioaren zahartzea bizilagunen artean eztabaidagai dira. Hainbat auzokidek Deusturekiko duten pertzepzioa partekatu digute.

Testua: Idurre Villanueva

Deustuko anexioa

1924ko urriaren 29an, Deustuko elizate independentea Bilbora batu zen. Hasieran landa eremu izanik, baserriak eta nekazaritza-jarduerak ziren nagusi. Hala ere, XIX. mendearen bigarren erdialdean, Bilboko industrializazioarekin auzoa urbanizatu zen, baina hiri erdigunetik bereizten duen bizimodu lasaia mantenduz.

Bizigarritasuna

Deustu familientzako auzo egokia da, hala hezkuntza-zentro ugariengatik, nola gune segurua izateagatik. Bilboko Udalak egindako inkestaren arabera, Deustuk eskaintzen du Bilboko auzoetan segurtasun sententzia handiena, 10etik 6.02ko kalifikazioarekin.

Haatik, Deustu ez da familientzako bakarrik; gazte-jarduera handia duen auzo da, baina batzuek uste dute zaharkitua geratu dela. Carlos Ibarrolak, bertako bizilagunak, adierazi du Deustu adinekoentzako auzo bihurtu dela, nahiz eta ikasle eta familia berriak egon. Domingo Valbuenak, jaiotzez deustutarrak, auzoa egokitutako espazio eroso dela azpimarratzen du: “Ni oso pozik nago hemen. Gainera, Deustuko lurzoru laua abantaila handia da gure adinekoentzat”.

Auzoko merkataritza eta jarduerak

Deustuk eskaintza lokala izaten jarraitzen du, baina, oro har, auzo guztietan gertatzen den bezala, saltoki lokalek

beherakada izan dute. Bizilagun askok aldaketa nabaritu dute; adibidez, Ana Isabel Rodriguezek dio haurren arropa erosteko lekurik ez dagoela, eta lonja askok itxita daudela. Azken urteetan, auzoko ekintzak ere murriztu direla ikusi du: “Faltan botatzen dut lehengo bizitasuna”.

Berdeguneak erlaxatzeko

Deustuk naturarekin duen harremana nabarmena da; parkeak, hala nola, Memoriaren Parkeak eta Deustuko Parkeak, deskonektatzeko eta lasaitzeko aukera paregabea eskaintzen dute. Elu Camberok – andaluziar jatorrikoa baina urte luzez Deustun bizi dena– aipatzen du ez duela ezer faltan botatzen eta San Pedro Plaza bezalako guneek betetasuna ematen diotela: “Ez naiz plaza honetatik ateratzen”.

Beti dago berdeguneak hobetzeko eta handitzeko aukerarik, baina Deustutik irten gabe, eremu atseginetan ibiltzeko aukera asko daude. “Itsasertzeko paseoa oso ondo dago eta Bilbora lasaitasun osoz joateko aukera izatea abantaila handia da”, dio Ana Isabel Rodriguezek.

Deustuko bizimodua, urteekin aldatuz joan den arren, gehienentzat onuraz bete izaten jarraitzen du. Bertako segurtasunak, lasaitasunak eta bizi-kalitate handiak deustutarren bizitza oparora elikatzen ditu.

berbetan

SONIA BUCUR eta SANDRA SANTOSEKIN

LA PUERTA TATTOOKO KIDEAK

“Gertutasuna gustatzen zaigu eta



Deustuk azkenaldian negozio berri bat hartu du bere bihotzean. Sonia Bucur zaragozarra da, baina jada zazpi urtez bizi izan da Bizkaian. Sandra Santos portugaldarra da, egun Llodion bizi dena. Biak La Puerta Tattoo estudioko kide dira, duela bi hilabete Deustura lekualdatu zen tatuaje estudioa. Sonia, lokaleko harreragilea eta marketin arduraduna da; Sandra, aldiz, tatuatzailea. Elkarrizketa honetan, Deustuko auzoari buruz dituzten lehen inpresioak eta esperientziak partekatuko dizkigute.

Testua: Idurre Villanueva Del Burgo

Argazkiak: Ecuador Etxea

auzoak horixe bera eskaintzen digu”

Deustun ireki berri duzue, baina benetan, noiz sortu zen La Puerta Tattoo?

Sonia: La Puerta Tattoo hainbat urte daramatza prozesuan. Deustun inaugurazioa egin aurretik Abandon zegoen estudioa eta pribatua zen.

Sandra: Urte eta erdi inguru generaman, eta ideia hasiera batean berdin jarraitzea zen, estudio pribatua izaten. Hala ere, udalak eskatuta eta hirigintza kontuengatik aldatu behar izan genuen. Izan ere, aldaketa nahiko azkarra eta erraza izan zen. Estudioa pribatua izatetik kaleko estudio izatera egokitzeko ez dugu inolako arazorik izan. Uste dut hala izan dela proiektuko kideok aurretiazko esperientzia dugulako.

Gaur egun zenbat langile zarete estudioan eta nola antolatzen zarete?

Sonia: Oraintxe bertan estudioan sei gaude. Lau tatuatzaile egoiliarak dira: Sandra, Ivan eta Pepe, estudioaren jabe direnak, eta Bitxor. Eta azkenik Jon, orain gurekin praktikak egiten ari den mutila.

Sandra: Horiez gain, hilean behin Tam etortzen da. Orain Xixonen bizi da eta noizean behin bisitan etortzen da. Estudioko langileez gain, gonbidatuekin ere ibiltzen gara lanean. Azkenean, sei tatuatzailearentzat lekua dugunez, lagunak edo proiektu interesgarriak dituzten artistak gonbidatzen ditugu. Sonia: Normalean hilabete bakoitzeko gonbidatu bat izaten dugu gurekin.

Zergatik erabaki zenuten lokala Deustun irekitzea?

Sandra: Ivanen kontua izan zen. Lehen aipatu dudan moduan, aurretik Abandoko pisu batean geunden eta egun batetik bestera estudioa bertan izateko baimena ukatu ziguten. Hirigintzari dagokionez, tatuaje-estudioak ile-apainketaren eta estetikaren epigrafean sartzen dira eta araudiak dionez hauek, kalean bertan egon behar dira. Hala, Ivanek Deustuko lokala alokatzeko iragarkia jartzen ari zirela ikusi zuen eta seinale moduko bat zela sentitu zuen.

Sonia: Esan zidan lokalaren tamaina ikustean jakin zuela ezin hobea zela berak zeukan ideiarako. Nik uste lokala bera baino, metroa aurrez aurre izatea gustatu zitzaiola gehien, ikusgarritasun handia ematen duelako. Dendaren aurrean gelditu ahal izatea eta lokal barruko jende trafikoa ikustea abantaila ere bada.

Nolakoa izan da auzoaren partetik harrera eta ze inpresio ematen dizue Deustuk?

Sonia: Egia esan, harrera oso ona izaten ari da. Batez ere auzoko jendea oso jatorra da. Asko hurbildu zaizkigu galdetzera eta hori eskertzekoa da. Kalean ikusten dugun jende trafikoa estudioa ekartzea asko interesatzen zaigu.

Sandra: Hurbileko saltokietatik ere etorri zaizkigu. Lanera joatean edo bertatik bueltatzen direnean, haien burua aurkezteko

“Inguruko dendeen zein auzoko bizilagunen harrera oso ona izan da”

D

berbetan

SONIA BUCUR eta SANDRA SANTOSEKIN

UUSAKONEAN

Sandra, nola hasi zinen tatuatzen eta zerk inspiratu zintuen zure ogibide bihurtzeko?

Modu tuntunenean izan zen. Tatuajeak egiten zizkidaten bitartean konturatu nintzen asko gustatzen zitzaidala mundu hori. Gainera, une hartan arte ederrak ikasten ari nintzen eta ilusioz beteta negoen. Probatzea erabaki nuen, eta gaur arte. Pare bat urte eman nituen senideei eta lagunei tatuatzen eta 2019an lehen estudioan hasi nintzen. Zorionez, ia hasi nintzenetik, tatuatzen ibili bitartean ez naiz beste lan batean aritu behar izan. Zorte handia dut tatuatzetik bizi naizelako eta horrekin oso pozik nago.

Sonia, zuri piercing mundua esploratzea gustatuko litzaizuke, ezta?

Hori da. Betidanik gustatu zaidan gauza bat da. Uste dut ez dudala inoiz gauza profesionaltzat hartu batez ere ezjakintasunagatik. Hala ere, estudioan lanean hasi nintzenetik Ivani esan nion lehen gauzetako bat izan zen, piercingen munduarekiko interesa nuela. Oso gauza estetikoak iruditzen zait. Duela gutxi hitz egiten aritu gara eta martxoa-apirilean ikastaro bat has dezadan pentsatu dugu. Horrela etorkizunean piercing eskaintza ere izango dugu estudioan.



gelditzen dira, eta asko eskertzen dugu. Inguruko denden zein auzoko bizilagunen harrera oso ona izan da eta oso pozik gaude.

Gainera, beste saltokietatik etortzen zaizkigun moduan, gu ere beste saltokietara joaten gara gure burua aurkeztera eta horrela, tokiko merkataritzari laguntzen saiatzera. Momentuz ezin dugu trabarik jarri. Alderdi horretan oso babestuak sentitu gara.

Abandorekin alderatuta, ezberdintasunak sumatzen dituzue? Bidenabar, Deustu erakargarria da zuentzat?

Sandra: Noski. Azkenean, Abando ondoan genituen autobus guztiak, aireporturako konexioak, Bilbo Handiaren inguru osora eramaten zaituen metroa... Orduan, bertan jende gehiago elkartzten da; Deustu aldiz, auzo familiarragoa da. Jendeak inguruan egiten du bizitza eta edonora joateko garraioak dauden arren, ez dauka Abando inguruarekin antzekotasunik.



Sonia: Bai, hurbilagoa iruditzen zait. Niri, gainera, asko gustatzen zait, eta beti gustatu izan zait inguruko jendea ezagutu ahal izatea; taberna batera joatea eta zerbitzariak zuzenean zer eskatuko duzun jakitea alegia. Halako gertutasuna gustatzen zait eta auzoak hori eskaintzen digu.

Garrantzitsua iruditzen zaizue bezeroarekiko tratu hurbila izatea?

Sandra: Nire ustez, funtsezkoa da. Nik, adibidez, batez ere jendearen lehen tatuajeak egin ohi ditut eta bezeroei beti gauza bera esaten diet: atetik sartu zarenetik, munduko lagunik onenak gara. Pentsatzen dugun guztia esan diezaiokegu elkarri, eta konfiantza osoz. Beraz, erakutsitako diseinua ez badu gustuko, esan diezadala. Milimetro bat mugitzea nahi badu, esan diezadala. Agian, argudiatu beharko diot zergatik berak dion lekuan ez litzatekeen hain ondo geratuko, baina jakin behar duen guztia esango diot.

Nire ustez, ordu erdiko lana bada ere, bezeroarekin lotura txiki bat sortzea ezinbestekoa da lana ahalik eta oberen egin ahal izateko. Tratuak pertsonalizatua izan behar du, bezeroa gustura egoteko eta etxean bezala sentitzeko. Azkenean, giro lasaia sortu nahi dugu, jendea gustura egotera etor dadin.

Oztoporik edo arazorik izan duzue lokala irekitzerakoan?

Sonia: Egia esanda, ez. Aurretik existitzen ginen ez, hutsetik hasi eta estudio bat irekitzea baino askoz errazagoa izan da. Gainera, prozesua nahiko azkarra izan da. Obrak irailean hasi ziren eta urriaren amaierarako ia dena prest zegoen.

Lokal honetako dekorazioa guztiz berria da edo aurreko estudiokoa ekarri duzue Deustura?

Sandra: Lokal osoa berritu dugu. Niri pertsonalki, pena handia eman zidan lokalez aldatzeak, bizitza osorako izango nukeen etxe ideala izan litekeelako estudio hura. Hala ere, berri honetan, aurreko lokalaren esentzia mantentzen saiatu gara. Adibidez, marmolezko pareta polit bat zegoen argazkiak ateratzeko; orain hemen marmolezko xafla batzuk jarri ditugu komunean. Horrelako gauzatxoak egin ditugu, lokal berriak lehenengoarekin zerikusia izateko.

Sonia: Ahal izan duguna ekarri dugu eta hemendik aurrera gure estiloa bilatuz joango gara.

Pentsatu al duzue auzoko ekitaldi edo jardueretan parte hartzea? Hau da, estudioa Deustuko komunitatearekin gehiago lotuko duen proiektu berriak egongo dira?

Sonia: Bai, baina oraindik prozesuan gaude. Nire ustez, estudioko kideok auzoko ekin-tzetan parte hartzeko ideia dugu, ezagut gaitzaten. Gutxi barru Deustuko jaiak dira eta moduren batean edo bestean parte hartzea gustatuko litzaiguke. Etorkizunera begira ere, baditugu ideia politak esku-artean; bezeroei zuzendutako tailerrak egitea gustatuko litzaiguke.

Momentu honetan ez daukagu proiektu zehatzik baina Deustuko auzokideei beherapenak egiten ari gara tatuajeetan. Bizilagunengana gehiago hurbildu ahal izateko horrelako gauza txikiak egitea gustatzen zaigu.

“Beste saltokietara joaten gara gure burua aurkeztera eta horrela, tokiko merkataritza laguntzen saiatzen gara”



KIROLA

Gazteentzako kirol-jarduerak Deustuko kiroldegian

Bilboko Udalak hainbat kirol ekintza antolatu ditu urteko lehen hiruhilekoan, martxora arte, Deustuko, Abusuko eta Errekaldeko udal-kiroldegietan. Izan ere, Deustuko kiroldegian urpekaritza tailerrak egingo dira. Saio hauek 13-16 urteko gazteentzako dira eta Bilbao Kirolak-eko abonatuentzat dohainik izango dira. Otsailaren 1ean, 8an eta 22an, eta martxoaren 1ean, 15ean eta 22an egingo dira jardunaldiok, 17:00etatik 18:00ak arte. Txanda bakoitzeko 10 plaza egongo dira. Izen-ematea Bilbao Kirolak-en webgunean edo udal-kiroldegietan egin daiteke.

KULTURA


Deustuko erromeriak martxan dira

Deustuko Folklore Taldeak antolatutako urteko lehen erromeriekin hitzordua izan dute euskal folklorearen zaleek Deustun. Otsailaren 22an, larunbata, musikak eta dantza tradizionalak San Pedro Plaza bete zuten: Bihotz Alai dantza taldea arratsaldeko 20:00etan aritu zen, eta 22:30ean, Nonbait erromeria. Martxoan ere, hilaren 15ean, larunbata, beste emanaldi batez gozatzeko tartea izango da, 20:00etan. Ez galdu jai giroaz gozatzeko eta euskal kulturaren tradizio-rik errotuenetako batean parte hartzeko aukera.

KULTURA

Zeramika tailerrak hasiberri zein ikasientzako

Deustuko Ramon y Cajal kaleko aisialdi espazio batek Zeramika tailerrak antolatu ditu otsailean eta martxoan. Horietan, parte-hartzaileek bitxiak, gosari-seta edo hasiberrientzako piezak sinpleak sortzeko aukera izango dute, materiala bertan eskuratu eta labean egosteko prozesua biziz. Tailerrak otsailaren 15ean, 22an eta martxoaren 1ean izango dira, eta bakoitzak 40 euro balio ditu. Informazio gehiagorako edo izena emateko, 688 977 755 zenbakira deitu daiteke.



GIZARTEA






Eraildutako Yolanda Gonzalezi omenaldia

Bilbok omenaldia egin du, plaka batekin eta lore eskaintza batekin, eskuin muturreko taldeek bahitu eta hildako Yolanda González gaztearen omenez.

Yolanda González Martín, Batallón Vasco Español-ek 1980ko otsailaren 1ean bahitu eta eraildako gazte bilbotarra oroitu dute otsailaren 1etik aurrera bere izena daraman plaka oroigarri batekin. Ekitaldia plazatxoan bertan, Deustuko Erribera 57an izan zen, Yolanda jaiotzen eta hazten ikusi zuen eta inoiz ahaztu ez duen auzoan.

Juan Mari Aburto alkateak eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Bilboko Fororen ordezkariak babesa eman zieten haren senide eta maiteei, Memoriaren konponketarako beste agintari eta erakunde batzuekin batera. Hunkigarritasun handiko omenaldia izan zen.





Sarikio parkean dagoen Larrako Dorrearen aztarnak.

Urtea: 1982

Txema Luzuriaga

Deustuko herria anexioaren kontra

Beraz, aurreko erabakia zuzendu eta udalak xurgapenaren aurka agertzea erabaki zuen, nahiz eta azken hori gobernadore zibilak balio gabetu zuen, “korrontearen 24ko bilkuran hartutako irmoa zelako”. Horrela, Udala geldirik geratu zen, baina herritarren bat-batekotasunetik auzotarren batzorde bat izendatu zen, Deusturen eta Madrilen arteko distantzia gainditzea lortu zuena. Gubernuko hainbat pertsona ezagunekin elkarrizketatu ziren, eta horiek gogatzera lortu zuten: anexioa sinatu gabe zegoela eta udalaren oposizioa kontuan hartzeko adierazi zieten. Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak Bilboko Udalari eta Gobernazioari jakinarazi zien Bilbo anexioari buruzko Errege Dekretu bat eskatzeko asmoaren alde zegoela, lau puntutan oinarrituta: udalerrri horietako lurraldeen artean zegoen mugen nahasmen tamalgarria, lur eraikigarria ez izateagatik hiribilduak hedatzeko zuen zailtasuna, bilbotarren garbitasunari eragin zekizkiokeen kalteak eta erantsi beharreko herrien saneamendurritasuna. Gainera, horri ere gehitu behar zitzaion 100.000 pertsona baino gehiagoko biztanleria izatera iritsi zela, baita gehiago ere izanda.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

blb:

BILBOTARRON
ALDIZKARIA

BLB KOMUNIKAZIO KOOP. ELK.
Ramon y Cajal 42, behea
48014, Deustua
admnrstrz.blb@gmail.com | 944471042

YVES ROCHER
FRANCE

Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303



**ATXURI
TABERNA**

Luzarra 1
Deustu

946 75 40 17

Iragar zaitez

Prest!-en

tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com



**Alonso
Pertsianak**

Plaza Celestino M^a del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

**Optica
Avenida**

Agirre Lehendakaria, 147 Tfnos:
SAN INAZIO 94 475 11 24



Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

1924tik Deustun

**Tintorería
La Flor**

Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29

Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze
jantziak...garbitzen ditugu

artez
euskara zerbitzua

**Probatu
herrizki.eus**

ANDROID APP
Google play

Apple App Store

ERROLDU ERABILTZAILEA GOBERNUO TONDOA BFA DVE

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net

**Matxintxu
aek ■ euskaltea**

Matrikula zaitez! **aek**

Nailan
Parquetak - Bamizak

Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo

tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

**RONDOKO
HORTZ KLINIKA**

Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855

Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia

PADI
OSAKIDETZA

Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda

**Sabin
Erlojudenda**

Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

**PERSIANAS
KM
CERRAMIENTOS**

Deitu eta Ikusi!!

PERTSIANAK ETA ITXIDURAK

Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Inauterietan bakarrik edo taldean mozorratzen zara?



Ion Iruñea

Ni normalean taldean mozorrotzen naiz, baina nahikoa kostatzen zaigu zertaz mozorrotu erabakitzea. Hilabete bat edo bi ibiltzen gara hizketan eta beti aurreko astean erabakitzen dugu, baina nahiko ondo atera ohi zaigu.



Ainitze Orereta

Batzuetan bakarrik prestatzen dut mozorroa, lagunak herrian daudelako eta ni aldiz, Bilbon. Hala ere, jeneralean lagunekin taldeka mozorrotzen naiz eta nahiko denborarekin prestatzen dugu, taldeko bi konpartsetan ibiltzen direlako eta haientzat inauteriak sakratuak direlako.



Ariana Deustu

Beti bikoteka edo taldean janzen naiz, inoiz ez bakarrik. Normalean presaka prestatzen dugu, beti sortzen delako arazoren bat. Mozorroa atalka Internetetik eskatzen dugunez, batzuetan ez da garaiz iristen.



Mikel Deustu

Taldean mozorrotzen naiz: nire neska-lagunak esaten duenari men egin eta hori da lagun-taldean jartzen duguna. Beti denborarekin prestatzen saiatzen gara, baina aurten azken momenturako utzi dugu dena.



Maider Deustu

Beti lagunekin mozorrotzen naiz eta inprobisatu egiten dugu, ez dugu denbora askorekin prestatzen. Gainera, etxeko gauzak erabili ohi ditugu: ez dugu egindako mozorrorik erosten.



Uxue Deustu

Nire lagun-taldean normalean guztiak batera janzen gara, pasaden urtean izan ezik. Mozorroa pentsatzen inauteriak baino hilabete bat lehenago hasten gara, baina ados jartzen ez ginenez, bi taldetan banatu ginen. Aurten, taberna batean lanean nabilenez, lankideekin jantziko naiz.



harkua bete herna

>> EUSKAL KULTURA

BIKOIZTUTA, AZPITITULUEKIN ALA BERTSIO ORIGINALLEAN?

Testua: Itxaso Sainz Nuñez

Gaueko hamarrak dira, ostirala, euria eta hotza kanpoan, aste luzea izan duzu eta juergarako inolako indarririk ez. Plan itzela deritzozu film edo telesail berri bat hasteari; hori bai, zein aukeratu? Are gehiago, bikoiztuta, azpituluekin ala bertσιο originalean ikusiko duzu? Komeria galanta, ezta?

Baietz inoiz horrelako dilema suertatu zaizula. Gaur egun, pantaila aro bete-betean gaudela, ikus-entzunezko oparo ditugu nahieran eta edozein momentutan kontsumitzeko. Egia da azpituluekin edota bikoizketa ez direla kontu berriak; izan ere, azpituluekin zinema mutuaren garaitik datozkigu; eta bikoizketa, aldiz, 30. hamarkadatik, hots, zineman soinua sartu zenetik.

Konforme, aspaldiko kontu batez ari naiz, baina go-goan izan behar dugu euskararen moduko hizkuntza txikiak askoz beranduago gehitu zirela zazpigarren artearen olatuan. Gainera, ziur aski, azken boladan, sarritan entzun duzue euskararen presentzia handitu dela gure pantailetan. Ados, “primeran” ikus-entzunezko plataforma propioa dugu, euskal zinemak garrantzi handia hartu du nazioartean edota erdal plataformek ere euskara txertatu dute haien hizkuntza eskaintzaren barruan (neurri txiki batean bada ere, edo azpituluen bitartez). Horrek guztiak pentsatzera garamatza euskarak gailurra ikutu duela ikus-entzinezkoiei begira, baina egia al da hori? Euskara inoiz baino egoera onean dago?

Bada, egin dezagun urteetan atzera: txikitik kontsumitzen zenituzten marrazki bidadunak bereziki zein hizkuntzetan ziren? Millennial garenok argi daukagu; saioen % 90 euskaraz bikoiztuta zegoen. Areago,

nori ez zaio arraroa egin Doraemon edota Shin Chanen ahotsa gaztelaniaz entzutea? Noski, egun bikoizketak egiten dira, baina ez garai batean ziharduten neurrian.

Goazen datu batzuk berriskutera. Euskal Telebista 1982an sortu zenean, Eusko Jaurlaritzak edukia euskarara bikoizteko erabaki sendoa hartu zuen; 80ko hamarkadan 2.000 ordu inguru horretarako eskaintzen baitziren. Tamalez, hamar urte baino ez ziren behar izan egoerak okerrera egiteko. Hamar urte eskasetan denbora hori erdira murriztu zen eta 2021erako, urtean 200 ordu baino ez ziren bikoizten. Bai, ETBk dio azkenaldian bikoizketen kopurua handitu dela, baina zein hizkuntzaren alde egin du apustu hori? Euskara ala gaztelaniaren alde? Begi bistakoa da ETBk bikoizketa baztertu duela; haren helburu nagusien artean bikoizketa ez da erdigune.

Hori horrela, ez gaitzela inozotzat hartu. Egia da ikus-entzunezkoek nabarmen lagundu dutela euskara mapan kokatzen eta pantailen bitartez apurka-apurka euskararen presentzia handituz doala. Hala ere, euskara ez dago inondik inora inoizko unerik onenean, eta datuek hala diote: egun streaming plataformetako euskarazko eskaintza ez da % 0,1era iristen. Hortaz, nahiz eta gaur egun euskal edukia “eskuragarriago” ditugun, duela zenbait hamarkadako euskararekiko apustua askoz irmoagoa zen. Hori bai, esan nezake azken urteotan lemari berriro heldu diogula, ez gabiltza itsasoan noraezean, urte ilunenak igaro dira eta bidaia luzea nahiz gorabeheratsua den arren, ertzimuga bistan dago momenturen batean lurreratzeko.




DEUSTUALDEA (1800-1975) ELIZATEA OSATU ZUTEN AUZOEN HISTORIA GARAIKIDEA Pedro Zuberoigoitia

Bilbok Deustuko elizatea anexionatu zuenetik 100. urtemuga betetzen dela baliatuz - 1924ko urriaren 29an, Errege Dekretu batek Deustu desagertzea eta Bilboko hiribilduari atxikitzea ezarri zuen -, 1800 eta 1975 artean elizatea osatu zuten auzoen bilakaera historikoa jaso dugu.

Ibilbide horretan arlo politikoa, ekonomikoa, demografikoa, soziolinguistikoa eta hirigintzari dagokiona jorratu ditugu. Amaierari dagokionez, berriz, data horretan jarri dugu Franco diktadorearen heriotzak etapa berri baten atea zabaldu zuelako Euskal Herriko hegoaldean.

Gertaera historiko guztiek utzi dute arrastoa gure inguru hurbilean, letra larriz idatzitako historia lurralde zehatz honetan ere haragitu baita: Karlisdietako bolbora-usaina eta tiro-hotsak, Antzinako Erregimenaren amaiera eta industrializazioaren hasiera, langile mugimenduaren eta abertzaletasunaren sorrerak, Errepublikaren aurrerapenak eta 1936ko gerraren triskantzak, diktaduraren hamarkada luzeak eta haren aurkako borrokak.

Horiek guztiak era gordinean bizitzea egokitu zitzairen deustuarrei eta liburu honek gertaera eta bizipen horien laburpena izan nahiko luke.



Non saltzen da liburua?

Deustuko Liburudenda
Done Petri plaza, 4

Herriko Taberna
Ramon y Cajal, 29

Deustuko Batzokia
Heliodoro de la Torre, 5

Euskararen Etxean
Agirre Lehendakaria, 135

Guimera Paperdenda 8
Agirre Lehendakaria, 181



Martxoak 10-26 / errigora.eus

Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, ardoa, arrosa, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta jatorrizko prezioan

EGIN
ESKAERA
ORAIN! >>>



JENDETZA ETA GIRO PAREGABE DEUSTUKO IÑAUTERIETAN

Otsailaren azken asteburuan ospatu ditu Deustuk Iñauteriak, eta Deustuko Jai Batzordea pozik dago emaitzarekin. Hainbat izan dira antolatutako ekintzak, eta aurreko urteetan bezala, parte hartzea azpimarratu dute, giro paregabearekin ospatu baitituzte festak. Horreki batera jaietara hurbiltzeko gonbitea luzatu digute.

Testua eta argazkiak: Deustuko Jai Batzordea



Ostiral iluntzea da. Hasi dira plazara, txosnaren ingurura, hurbiltzen lehendabiziko pertsonaiak. Denerarik elkartu da: vicky bikingoak, wazemankeko zale nostalgikoak, eskupilota zaleak, txikiteroak, Kerman mintzalagun bila... Ostirala kuadrillen gaua da, eta EITB izan da mozorroak abiatzeko gaia. Urtez urte indarra hartuz joan da ostirala eta, hasieran, kuadrillak lotsati hurbiltzen diren arren, elkarren arteko jolasekin giroa hartzen du gauak, aterpetik kanpo euri-jasa bada ere. Batzuek hurrengo egunerako indarrak gordetzea

erabaki eta goiz egiten dute buelta, eta beste batzuek luzatu egiten dute, asteburua luzeegia egingo ote zaiznaren kezkarik gabe.

Larunbatean, ordea, eguzkiak ere ospatu zituen Deustuko inauteriak. Goizean, Lantzeko inauteriak dantzatzera irten ziren gazteenak eta, gero, 600 lagun elkartu ziren herri bazkarian. Bazkalostean DJ Reimyren bizikletaren atzetik ibili ziren hamarnaka lagun, ia-ia 3 orduz Deustuko kaleetan zehar. Zalantza handiena da

CINCO GOLONDRINAS

Dramaturgia eta zuzendaritza RAKEL R.R. (ARYMUX)
Antzezleak NEREA SANZ, NORA URDANPILETA,
MARKEL URRESTARAZU, PINO DE PABLOS, ARITZ CASTILLO

Zeinudantza, zeinu hizkuntzara interpretazio eta irisgarritasun neurriak dituen antzezlan inklusiboa
Obra inclusiva con Signodanza, interpretación de lengua de signos y medidas de accesibilidad

MARTXOAREN 21etik APIRILAREN 06ra



P6

www.pabellon6.org

nork gozatu zuen gehien: juergazaleek ala DJ Reimyk berak. Eguna bukatzeko, dantzak hartu zituen Done Petri plazak, euskal dantzeekin hasieran, eta Nonbait erromeriarekin gero, lepo egon zen plaza.

Igandea ederra da deustuar guztientzat. Desfile Nagusiak Madariaga etorbide osoa hartu zuen eta 30 taldek, kuadrillak, elkartek eta eragilek erakutsi zituzten bere mozerro eta karroza bereziak. Desfilean bazen bere mozerro landua harro erakusten zuenik, baina baita aurreko egunetik zikin zuen lotsagaberik ere. Desfile horretan maila eta estilo guztietako mozerroentzako lekua badago. Asteburua bukatzeko, sariak banatu ziren plazan: mozerrorik onena, karrozarik onena, animaziorik onena... Komertzioetako mozerrorik politenari eta eskolen arteko marrazki lehiaketako ikasleei ere sariak banatzen zaizkie. Gainera, Juanjo Mendibilen omenezko sari bat ere badago, 1977an lehenbiziko inauteriak antolatu zituelako Deustun eta ehundaka lagun desfilatzeraz atera zirelako orduko debekuen gainera.

Asteburu honetan ikusgarriak izan diren ekintzak kontatu ditugu, baina hau posiblea izan da Deustuko Jai Batzordea osatzen duten kideak burubelarri ibili direlako ekintzen antolaketan, txosnaren muntaketan, sukaldatzen, txandak egiten, eta dena garbitzen. Pozik daude emaitzarekin, eta laster izango diren jaiak prestatzen jarraitzeko gogoz. Martxoaren 14tik 23ra Deustuko Jaiak izango dira, beraz, laster arte!




harkua bete herba

>>JAI HERRIKOIAK · DEUSTUKO IÑAUTERIAK



Argazki galeria





harkua bete herba



Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoak zure etxean!



Ramon y Cajal, 24
DEUSTUA
Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako frontoiaren atzean

Zatoz gure eskaintza berria probatzera!



Astelehena - Asteartea - Asteazkena
09:30 - 13:00 | 18:00 - 22:00

Osteguna - Ostirala
09:30 - 13:00 | 18:00 - 01:00

Lanurbata
18:00 - 22:00

© DeustukoHerrikoTaberna

Ramon y Cajal 29 - DELSTU

**ZURE PINTXO
ONENAK GUREKIN
KONPARTITZEKO**

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN



kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



JON INTXAURRAGA

Irakasle

MY FAIR LADY EUSKAL HERRIAN

Urtarrilean nire bihotza zabaldu nizuen eta otsailean aitortuko dizuet Audrey Hepburnekin izan nuela, zelan esan, maitasun garai bat. Platonikoa, jakina! Esan gabe doa ez nuela oujara jo; ez nago burutik jota, bere pelikula askotara bai, ordea, besteak beste, *My Fair Lady* (1964, Cuckor).

Lehenengo eszenak kateatu ninduen. Higgins (Rex Harrison) hizkuntzalaria eta Pickering koronela (Hyde-White) pasearien auzoak asmatzen ari dira berbaerari erreparatuz. Orduan Eliza (Hepburn) ezagutuko dute, auzo txiro bateko lore saltzailea, eta hizkuntzalariak sei hila-bete izango ditu goi-mailako modalak irakasteko (besteak beste, ingelesa), bestela Pickering koronelarekin apustua galduko du.

"Kontxo, hemen berdina egin dezakegu!", eta nire imajinazioa hegaka hasi zen: Arriagako irteeran daude: "hau Begoñakoa da", "hau Zamudiokoa" etab. Hizkuntzalaria Bonaparteren berri emaile bat da (Joseba Usabiaga biboteagaz?) eta koronela liberal euskaltzale bat (Ramon Agirre?). Orduan Eli ondarrutarra (Ainhua Etxebarria?) agertuko da eta erronka honakoa: modalez gain, euskara batua ikas dezala (lizentzia bat da, tramak puntxa gal ez dezan).

Pelikula arrakastatsua izan daiteke, horregatik ideia partekatu nahi dut norbaitek erabil dezan, Creative Commons lizentziapean. Trukean, kredituetan nire izena aipatzeaz gain, paper txiki bat eskatuko dut, ez dut alperrik bibote dotore bat, ezpada film batean agertzeko! Norbait prest?

Oh: Hepburn gustuko baduzue, hona gomendioren bat: *Bi errepidean* (1967, Donen), *Charada* (1963, Donen) edota *Umeen ordua* (1961, Wylar).

Doinua: Haizeak bidali du



**ERIKA BRAVO ETA
KATTALIN URRIZ**

Elorri bertso-eskolako kideak

Mozorroa erosiz
Azken orduetan
Lagunekin dantzaten
Herriko txosnetan
Etxera heldu gara
Goizeko seietan
Zelan pasatu duzu
Inauterietan?

Zapi gorria jantziz
Denok lepoetan
Lehen saria lortuko
Dugu paelletan
Playback dantza prestatzen
Egun ta gauetan
Plaza jendez beteta
Nahi dugu jaietan



**ZUREKIN BATERA
IREKITZEN DUGU
EGUNERO,**
zure negozioia
bultzatzeko

Kresala Surf Eskola,
2023az geroztik



LOKALIA

**Dena tokiko merkataritzarako.
Dena tokiko merkataritzarentzat.**

laboralkutxa.com/eu/lokalia

LABORAL Kutxan geure aletxoak ipini nahi dugu, **tokiko merkataritzak** gure herri eta hiritako aktiborik handienetakoa izaten jarrai dezan.

LOKALIA laguntzeko jaio da, eta **irtenbide integrala** eskaintzen du, gauzak errazteko, lasaitasuna emateko eta saltoki txikien ezaugarri guztiak sendotzeko.



LABORAL
kutxa

ANTZERKIA

KRISTALEZKO ZOOA

Tennessee Williams

MARTXOAK 21- 23

ESTREINALDIA EUSKARAZ

GARAREN babesaz

LORALDIA FESTIBALAREN kolaborazioarekin

Moldaketa eta zuzendaritza:
Natalia Menéndez

Itzulpena eta euskerara egokitzea:
Kepa Errasti

Antzezleak:
**Mikel Losada
Ione Irazabal
Miren Gaztañaga
Arnatz Puertas**

Musika:
Luis Miguel Cobo

Eszenografia:
Monica Boromello

Ikus-entzunezkoak:
Gheada

Figurinista:
Tania Tajadura

Argiztapena:
Juan Gómez Cornejo

Zuzendari laguntzailea:
Getari Etxegarai

ARRIAGA ANTZOKIAREN EKOIZPEN BERRIA



Bilbao

EL CORREO GARA

Dela

bbkE

Bizkaia

SEIZ

Radio

Bilbao

inaem

mondragon

Lingua

fcc

Rede Ambiente



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Martxoak

2025

14-23



DEUS TUKO Jaiak.

gora
deustuko
jai hemikoiak!

